

## X.-Kostuak:

Shiro S.A.-k izango duen kostu finkoa web-gunearena, aplikazioarena, dronen erosketa, dronen lizentzia eta gure soldatak izango da. Hasteko 8 dron erosiko ditugu eta bakoitza 3.500€-ko kostua izango du. Dronen lizentziak 1.000€-ko kostua emango digu, web-gunea eta aplikazioarena beste 1.000€-ko kostua eta soldatetan 4.800€ gastatuko ditugu, hasieran 4 langile izango ditugulako. Lokalak ez digu kosturik ekarriko Danelen aititerena erabiliko dugulako.



Beste aldetik, kostu aldakorrak izango ditugu, hala nola, energia eta dronen mantenimendua. Hilabetero, 80€ inguru ordaindu beharko ditugu erabiliko dugun energiagatik eta dronen mantenimendua lehenengo bi urteetan ez digu kosturik ekarriko, dronen erosketarekin bi urteko garantia izatea adostu dugulako. Aurretik aipatutako kostuak zuzeneko kostu bezala sailkatzen ditugu baina zeharkako beste kostu mota batzuk izango ditugu. Gure zeharkako kostu nagusiak gure enpresak ordaindu beharko dituen zergak dira. Autonomo bezala alta emango dugu eta horrek hilero 367,84€-ko kostu emango digu.

Egingo diguten publizitatea ordaintzen 5.000€ gastatuko ditugu. Atresmedia-en telebista kanaletan 3.000€ gastatu ditugu. Gainera, Instagramen iragartuko dugu gure zerbitzua eta hori 2.000€-ko kostuak izango ditu.

